

Donostian, Ekauta-jauregian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Iraila-Buruillaren ogetamarrean.

Maipuru: Etxaide jauna.

Batzarkideak: Lekuona, Irigarai, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak.

Araudizko otoitzez asten da batzarra.

Lenaurreko batzar agiria irakurten da ta aobatez onesten da.

Garmendia jaunak "Seminario Julio de Urquijo" deritxon batzordeak eratutako itzaldietan, berak oraintsu erabilia argitaratu nai dau eta Euskaltzaindiaren baimena daska. Pozik emoten dako.

Beinola Altube euskaltzainak "Erderismos" izenagaz euskalgaizko lan sakona idatzi eban eta Euskaltzaindiak beronen **Euskera** aldirokoan argitaratu eban. Geroagoan, Mitxelena Euskaltzainak Arnaut Oihenarten olerkiak gaitzat arturik, itzaldi bat egin eta argitaratu eban; lan orretan len aitaturiko Altuberen lanari oar batzuk ezarten dautsaz. Orain, Mitxelenak onan esandakoari Altubek darantzutso Euskaltzainburuari bidalitako lan luzetxo baten bitartez eta lan au Euskaltzaindiak argitaratu dagiala eskatzen dau. Eskari oneri buruz Villasante jaunak oar batzuk irakurten dauz. Arazo au dala ta batzarkideak eztabaidan daragoioe. Eta azkenez, aitaturiko Altuberen lana **Euskeran** argitaratzea erabagi da aobatez, al dala Villasanteren oarrak ezarririk.

Irigarai jaunak adierazoten dau, oraintsu M. Sota'k eskini dautsazala Azkue jaunaren Itzeginako oar batzuk. Pozik entzuten da barri ori, ta oarrok artu bediz, Itzegia ala beronen geigarria argitaratzen diranean.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.